

«EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN GARATZEKO EGINDAKO LANA» ESKERTU DIO MARTIN UGALDE KAZETARIARI EHUK

Duintasuna, 'honoris causa'

■ Euskal Herriko Unibertsitateak *honoris causa* doktore izendatu duen lehen kazetaria da Martin Ugalde atzodanik

■ Juan Jose Ibarretxe: «Sakon-sakonean bide bakarrari heldu dio Martin Ugaldek: duintasunari»

■ Martin Ugaldek EUSKALDUNON EGUNKARIAREN sorreran egindako lana goraipatu zuten EHUko ordezkariak

Imanol Murua Uribe / Donostia

«INFORMAZIOAREN esparruan egindako lan handi-gatik eta bereziki euskara komunikabideetan garatzeko egindakoagatik» *honoris causa* doktore izendatu zuen Martin Ugalde idazle eta kazetaria Euskal Herriko Unibertsitateak atzo, Donostiako Mirmar Jauregian egindako ekitaldi akademikoan. EHUko *honoris causa* doktore izendatu duen lehenengo kazetaria da, honenbestez, Martin Ugalde EGUNKARIAKO ohorezko lehendakaria. Ekitaldi berean, Pedro Miguel Etxenike eta Juan Jose Goriñena irakasleei Unibertsitatearen Urrezko Domina eman zien EHUk.

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, hiru orduko ekitaldiaren bukaerako hitzaldian, Martin Ugaldereen eredugarritasuna nabarmendu zuen: «Gutxitan izaten dugu euskaldunok aurrean halako gizon eredu-garririk». Ibarretxeren hitzetan, «sakon-sakonean bide bakarrari eutsi dio Martin Ugaldek: duintasunari. Hori-ze izan du aldi bereko bide eta ikur».

Martin Ugaldek «belaunaldien arteko egindako zubi



EDURNE KOCH

Jose Manuel Susperregi irakaslea aitabitzi zelarrik, Pello Salaburu errektoreak ezarri zion Martin Ugalderei *honoris causa* doktorearen birreta.

lana» ere goraipatu zuen Ibarretxe: «Joandako belaunaldien oihartzuna gaur egungo- ei pasatzen asmatu du. Gaur egungo gazteak herri honen eraikuntza sartu ditu. Gazte horientzako askorentzat eredu bihurtu da». Eta konpromisorik zailenak hartzeko izan duen adorea nabarmendu zuen: «Ez du inoiz atzera

egin euskararen aldeko ekimenik konprometituenetan. Gazte zoro batzuen egitasmoak besterik ez zirela esaten zenean ere ez. Han zengoen, beti gidari, partaide umil baina eraginkor, esanez: 'Gazte-ek egiten ez badute, nork egingo du?'».

Euskal Herriak bere historia hurbileko «unerik garran-

tzitsuena» bizi duen honetan, Ugaldereen jokaera eredu dela esan zuen lehendakariak: «A zer garrantzia duen gizon honen adibideak gure gizarteak bizi duen une hauetan».

Pello Salaburu EHUko errektoreak ere Martin Ugalde «belaunaldien arteko kate-maila» dela adierazi zuen. «Euskal kazetaritzaren profe-

sionaltasunaren bidean aitzindari» dela esan zion Salaburuk Ugalderei. Kazetari izateko bidean zailtasun handiak izan zituela gogoratu zuen EHUko errektoreak, baina «kazetari jantzi eta saritu» bihurtzea lortu zuela.

Komunikabideak, euskararen zutabe

Salaburuk esan zuenez, «argi eta garbi ikusi zuen Martin Ugaldek, beste askok baino lehenago, komunikabideak direla euskararen biziraupenaren zutabe. Horregatik aitzindari izan da eta horregatik euskara hutsezko egunkaria sortzearen aldekoa izan zen hasiera-hasieratik». Errektorearen hitzetan, «berak eman zion aurpegia proiektuari, bera izan zen EGUNKARIAren Administrazio Kontseiluko lehenengo presidentea».

Erbestetik Euskal Herrira itzuli ondoren, «euskara lan- tzea eta euskara txukun erabiltzea» izan zuen Ugaldek «zinezko helburuetako bat». Euskara batuaren inguruko eztabaidan, «gauzak batere argi ez ziren garai hartan», batuaren aldeko jarrera argia

esolain

Etika eta estetika

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK ohorezko kazetari nagusi-edo izendatu du Martin Ugalde. Zorionak Martini, eta zorionak Euskal Herriko Unibertsitateari. Biak ohoratzen ditu izendapen honek.

Martin Ugalde kazetaria da. errotik kazetaria. Ez da kazetari hutsa, ordea. Martinek bere bizitzan zehar alor asko landu ditu: kazetaritza bai, eta gainera, literatura, euskalgintza, politika, kulturgingintza.

Martin Ugalde bat eta bera da beti, baina mila modutara islatzen da bere irudia.

Martinen traiektoria laburbiltzeko, bi kontzeptu (kontrajarriak?) behar dira, honen kasuan sintesi edo sinbiosi mires-

garrion bat eginda ageri direnak: etika eta estetika.

Etikaren baitan ulertzen da politika, konpromisoa, borroka soziopolitikoak, gizakiaren eta gizartearen problemak.

Estetika alpatzen dugunerako zera datorrigu burura, forma, artea, moduak, ederra.

Bi mundu arrotz eta estrainio, askorentzat. Martinentzat bat bera dira biak. Martin Ugaldereen literatura aztertu dutenak aho batez aitortzen dute Martinen literaturan edertasuna eta konpromisoa batean biltzen direla.

Martinen literaturan pertsonajak baino gehiago pertsonak agertzen dira. Gizon-enakume arruntak, justizia gabeko

edo txarreko gizarteak ekoizten dituen biktimak, pobreak, immigranteak. Jende apala, arrunta, txiroa da Martinen ipu- netako subjetoa.

Eta Martinek bat egiten du pertsona horiekin. Haien begiekin ikusten du ego- era. Solidario da haien sofrimenduekin. Eta solidaritasun hori denuntzia bihurtzen da. Biktimak sofritzen duen injustiziaren salakuntza.

Gai horiek «literatura» bihurtzean datza Martinen sekretua. Martin ez da este- ta soila, hori ez, Berak esana da edukirik gabeko hitz politikak hutsaren adornoak bezala direla. Baina edertasuna, musi- kan, literaturan, ez da ezteusa, dio berak. Ez du enbarazurik egiten, bizitzen lagun-



«Miraria zirudien!»

EGUNKARIAren sorreran bidelagun izandako Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka gogoratu zituen Martin Ugaldek

IDAZLE gisa ezaguna bada ere, bere burua kazetaritzat duela esanez hasi zuen hitzaldia Martin Ugaldek. Idaztea eta euskaraz hitz egitea debekatzen zuten garaia bizitzea egokitu zitzaionlarik, «idazteko errebeldia» amaren komunikaziorako «doain naturalari» zor diola


aitortu zuen. Aita euskaldun hutsa izanik ere, etxean *El Día* eta *Euzkadi* hartzen zituztela gogoratu zuen: «Orduko gure herriko kazetak erderetako eskolak ziren!».

Garai hartan ezina izan zen «kazetaritza euskalduna» gauzatzeko EUSKALDU-

NON EGUNKARIAren sorreran egindako lana ekarri zuen gogora ondoren: «Neroni tartean nintzela euskaldun erdaldundutako eta euskal kazetaritza gabeko, euskaldun gazteez ingurata, horien errebeldia eta arrazoiak ematen diren adarrekin, honen anparoa, ausartu nintzen enpresa honetan sartzen orain hamar urte, eta sosik gabe, Mezenas baten bila, edo diru pixkakako asko! Hori bai, dirudik gabeko herri osoa zetorren bultzaka. Miraria zirudien!».

Euskarazko egunkariaren sorreran bidelagun izandako Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka aipatu zituen Ugaldek —«ongi merezia dute aipamena»—, eta Zumalabek hiltzerian zegoela idatzi zion gutuneko pasarte bat irakurri zuen. «Maitasun handia behar da gaurko egunean edozein hizkuntzetan lehen aldiz egunkari bat sortzeko», esan zuen Ugaldek. Zumalaberen hitzak gogoan. «Maitasun baten historia» izan daiteke egokia euskarazko kazetaritzaren historia laburtxo honi izena emateko.

EHUrentzat izan ziren Ugalderen azken hitzak: «Lorpen ederrak egin baditu ere, euskararen jauzi handi baten behar gorrian dago. Hau saiatzeko ordua heldu da! Itxaropenaren ondoren, ekintza beti!».



EDURNE KOCHI

Martin Ugalde, atzo, Miramar jauregian.

Hiru lehendakari erbesteko kontseilariarentzat

■ *Politika, kultura eta gizarteko pertsona ezagun ugari izan ziren Miramar jauregian*

J.M.U. / Donostia

CARLOS GARAIKOETXEA eta Jose Antonio Ardanza elkarren aldamenean eserita, eta Juan Jose Ibarretxe ekitaldiko mahaiburua. Eusko Jaurlaritzako azken hiru lehendakariak Miramar Jauregian izan ziren. Erbesteko Jaurlaritzaren azken urteetan —Leizaola lehendakari zela— kontseilari izandako gizonari ohore egin zioten horrela, Martin Ugalde klandestinitatean «barneko kontseilari» izan baitzen. Garaikoe txearren gobernuan ere parte izan zen gainera Ugalde, Euskararen Sustapenerako arduradun gisa.

Politikagintzako beste hainbat pertsonalitate ere izan ziren Miramarren. Jaurlaritzako kide Inazio Oliveri, Mari Karmen Garmendia eta Patxi Ormazabalekin batera, Roman Sodupe Gipuzkoako diputatu nagusia, Inaki Alkiza Batzar Nagusietako lehendakaria, Odon Elorza Donostiako alkatea, Juan Maria Atutxa Eusko Legebiltzarreko burua eta Xabier Markiegi Arartekoak ageri ziren lehenengo lerroetan eserita.

EHUko doktoreek hainbat lerro bete zituzten. Haien artean ziren Martin Ugaldek bere hitzaldian bereziki eskertu zituen Jose Vicente Idoia, Lontxo Oiarzabal, Manuel Montero eta Jose Manuel Susperregi. Baita Unai Ugalde irakaslea ere, Martinen semea. Javier Retegi han zen, Mondragon Unibertsitatearen izenean. Txillardegi ere, Martin Ugalderen aspaldiko adiskide, ez zuen hutsik egin. Martin Ugalde euskaltzain urgazle ere badela gogoratzen zuten Jean Haritzelhar euskaltzainburuaren eta Juan San Martin, Xabier Kintana, Jose Antonio Arana Martija euskaltzain presentziak.

Martin Ugalderen azken urteotako lanik garrantzitsueneko lanbideak ere ondoren izan zituen: Inaki Uriak, Joan Mari Torrealdai eta Martelo Otamendik ordezkatu zuten EGUNKARIA.

Eta lehenengo lerroan, atzoko hitzaldietan behin baino gehiagotan gorapaitu zuten pertsona: Ana Mari Martinez. Emaztea.

hartu izana ere eskertu zion Ugalderi errektoreak. Jarra hori hartu izanaren garrantzia «bereziki azpimarratu» nahi zuela esan zuen, «gauzak errazago ikusten baitira distantziatik».

Laudatioa

Jaurlaritzako eta EHUko agintari nagusien hitzen aurretik, Jose Manuel Susperregi katedradunak irakurri zuen Martin Ugalderen *laudatioa*, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen izenean, fakultate honen proposamenez izendatu baitute doktore Ugalde.

Susperregi irakasleak Martin Ugalderen biografia- ren nondik norakoak laburbildu zituen. Gerra zibilaren ondoren Venezuelara erbesteratu eta kazetaritza lanari han ekin zitzaion gogoratu zuen: *Elite*, *Nosotros*, *El Farol* aldizkarietan eta *El Nacional* egunkarian aritu zen, besteak beste, Ugalde. Eta erreportari gisa nabarmendu zen. *Cuando los peces mueren de sed* liburu sarituan bildutako lanak nabarmendu zituen Susperregik. Venezuelan bizi zen artean Martin Ugaldek, formazioa helburu, Estatu Batuetan ere zenbait egonaldi egin zituela azaldu zuen Susperregik. Erbestetik itzultita, *Zeruko Argia*-n eta *Deia*-n egindako lanak aipatu zituen Susperregik, eta *Hablado con los vascos*, *Sintesis de la Historia del Pais Vasco* eta *Hablado con Chilli* liburu «garrantzitsuak» argitaratu zituela.

EGUNKARIA-ren sorreran izandako parte hartzea gogoratu zuen Susperregi irakasleak ere. «Esku hartze hau izan da, beretzat, jaso duen saririk onena».

bere herriaren berririk eta kontzientzia ematen, euskararen eta euskal kulturaren aldeko proiektuak sortzen eta bultzatzen.

Bere kontzientzia etikoak horretara bultzatu du Martin. Sekulako koherentzia erakutsi du bere bizitza osoan zehar. Egunkarian bukatu du 90eko hamarkada, eta normalean da. Egunkariak simbolizatzen du bere borroka politiko-kulturaren funtsa. Eta, esango nuke, era berean bere estetika ere bai, jokatzeko modua alegia.

Martin Ugaldek bere ibilbidean borroka berari adina munta eman dio moduari. Ez politikan eta ez kulturaren edozein modutara jokatzeko ez da bideko, dio berak. Helburuek adina garrantzi eduki dezake askotan bideak, moduak, formak. Konfliktu egoera batean ere jokatzeko jakin egin behar da, garbi jokatu behar da, bestearekiko begirunez. Borroka bako-

itz, istilu bakoitzak bere unea du, bere modua, bere terrenoa. Irnatasuna eta malgutasuna ez daude kontrajarriak.

Martinek bere posizioei tinko eutsi die, istilu eta guzti, eta bere deskargua egin gabe ez da sekula erretiratu, baina ez du sekula jo eskandalua lehertzerako, kontrarioa deskalkifikatzerako.

Estetikak ez du etika ahuldu Martinen baitan, kontrara baizik. Jokatzeko ikusi dugunok badakigu hori.

Martin Ugalderen trailektoria ereduagari hau zeinek aitortu eta sarituko du? Klandestinitateko Eusko Jaurlaritzan «kartera» gabeko kontseilari izan den Martini, ez al dio Eusko Jaurlaritzak aitortpenik egin behar, bizi den bitartean?

Joan Mari Torrealdai

EUSKALDUNON EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria

tu egiten du, eta sendatu ere egiten omen du!

Etikaren eta estetikaren elkarlotze mi- esgarri hori ez da Martinen obran baka- rik ikusten. Bere bizitzan zehar ere bai. Paradigmatikoak dira, bai bere itzulera Caracasetik Euskal Herrira) eta bai gero- so bidea.

Idatzita utzi du berak ez zela Euskal Herrira itzuliko herri hau herri normaliz- atua izan balitz. Pobrea, kulturalki mu- rritzua eta gutxitua zegoelako itzuli zen. Venezuelan utzi zituen gurasoak, etxea, literatur arrakasta, posizio sozial inbidi- garria, karrera profesional oso bat. Eta ez zen indiano gisa eta ez jubilatzerako etorri, baizik eta herri gutxitu honen alde lan egitera.

Geroztik, herri honen alde jo eta ke la- tean ezagutu dugu. Politikan, klandesti- nitateko arriskuan, euskal herritarri